

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Behin betiko onespena ematea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egitura aldaketari, zeinek garai bateko Vasco-Navarro trenbidearen bide berdearen Otazutik Gasteizerainoko tarteari eragiten dion

Hauxe erabaki zuen Udalbatzak 2014ko azaroaren 28an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onespena ematea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egitura aldaketari, zeinek garai bateko Vasco-Navarro trenbidearen bide berdearen Otazutik Gasteizerainoko tarteari eragiten dion

ERABAKI-PROPOSAMENA

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saileko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen aldaketa bat izapidetzeko eskaera egin du 2014ko maiatzaren 15ean, hain zuzen ere, garai bateko Bergara-Lizarraren trenbideak Otazu eta Gasteiz (Zubigarai) artean duen ibilbideko bide berdeari dagokio eta horri buruzko dokumentazio teknikoa erantsi da.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko ekainaren 27an egindako bilkuran aipatutako aldaketa horren proiektua onetsi zuen, . Aldaketa hori Garraio eta Komunikazio Sistema Orokorraren mugaketa batean datza eta Maltzaga eta Lizarraren bitartean gauzatu gabe dagoen Bide Berdearen zati bakarra garatzea du xede, hori guztia Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza zuzendaritzak idatzi eta zuzendutako proiektuarekin bat. Hala ere, udalaren Topografia eta Mapagintza Atalarekin sistema orokor horren mugaketa berria adostu behar da, egoki definitu dadin (baita azpiegiturak sor ditzakeen eragin berriak ere), aldakuntzari behin-behineko onespena eman aurretik eta Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak 2014ko ekainaren 20an egindako txosten teknikoarekin bat.

Gasteizko udalbatzak 2014ko uztailaren 18an egindako ohiko bilkuran eman zitzaion hasierako onespena udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren delako xedapen aldakuntza horri, Hirigintza eta Etxebizitza Irizpen Batzordeak egindako proposamena onartu zelarik.

Udalbatzaren erabaki hori 2014ko abuztuaren 6ko ALHAOn (73. zk) eta 2014ko uztailaren 30eko Diario de Noticias de Álava egunkarian argitaratu zen, eta aldakuntzari buruzko dokumentazioa hilabete batez jendaurrean jarri. Ez da inolako alegaziorik aurkeztu denbora horretan.

Gasteizko Udal Plangintzarako Aholku Kontseiluak aldaketa aztertu ondoren, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldakuntza honen aldeko txostena egin zuen 2014ko irailaren 22an egindako ohiko bilkuran. Guztia Aholku Kontseilu horren idazkariak egindako egiaztagiriarekin bat dator.

Udalbatzak, 2014ko irailaren 26an egindako aparteko eta premiazko bilkuran, Plan Orokorraren aldaketa horri behin-behineko onespena ematea onetsi zuen, eta erabaki hori eta aldaketaren proiektua Euskal Lurralde Antolamendurako Batzordera igortzea, txostena egin zezan.

Euskal Herriko Lurralde Antolamenduaren Batzarraren Arabako hirigintza plangintzako sekkzioak, 2014ko azaroaren 1oko bilkuran (7/2014 saioa), Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Xedapen Aldakuntzari buruzko dosierra aztertu zuen, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, Euskal Herriko Lurraldea Antolatzeko 4/1990 Legearen instrumentuetara eta Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunien eta Lurralde Historikoetako foru organoen arteko harremani buruzko legea aldatzen duen 5/1993 Legean adierazitako alderdietara egokitzeari buruzko balioespena egin zuen.

Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak dosierraren aldeko txostena egin du, inolako eragozpenik jarri gabe.

Zegokion txosten juridikoa egin du Hirigintza Saileko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak 2014ko azaroaren 20aan, garai bateko Vasco-Navarro trenbidearen bide berdearen Otazutik Gasteizerainoko tarteari dagokion Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldakuntza puntual horren behin betiko onespeneren inguruan.

Indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorren testu bategina Arabako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 25eko 143/2003 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen behin betiko, eta 2003ko martxoaren 31ko ALHAOn argitaratu.

Gasteizko HAPOko 10.13 planoak, "Udalerriko oinezkoentzako bideak" deitua, tarte hori "proposatutako bidegorria" "Ibilbideen arteko lotura" gisa jasotzen du (garai bateko trenbidearen ibilbidea dela eta).

Aldaketa honek Zubigarai eta Otazu arteko Garraio eta Komunikazio Sistema Orokorren mugaketa berria dakar berekin, gaur egun Maltzaga eta Lizarra artean gauzatu gabe dagoen garai bateko Vasco-Navarro trenbidearen Bide Berdearen zati bakarrerako.

Bide Berde horrek finkatuta baina loturarik gabe dituen zatiak fisikoki lotu ahal izatea du xede, izan ere antolatu nahi den lurralde zati horrek bereizi egiten ditu. Erdialdeko Arabako Lurraldeko Plan Partzialaren AE-6 egitura ekintzan, sektore administrazioentzako gomendio gisa jasota dago, oro har, ekintza hori.

Proposatzen den aldaketak garraio eta komunikazio sistema orokorraren ingurua, urbanizagarria ez den lurzuruan (Zubigarai eta 3+200 puntu kilometrikoaren artekoa, garai bateko trenbidearen ibilbidearekin ia bat datorrena) egokitu eta berriz zehaztean datza. Ekialderantz, A-2130 errepidearen hegoaldearen ondoan urbanizagarria ez den lurzoruaren zati bati eragiten dio, bidegurutzea egin ondoren.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa horri dagokion proiektuan memoria jaso da, eta bertan azaltzen dira xedea, aldaketaren ekimena, eremua eta egungo egoera, aldaketaren egokiera eta beharren justifikazioa, aldaketa-proposamenaren deskribapena, indarrean dagoen plangintza eta proposatutakoa, eta behar den dokumentazio grafikoa.

Bete egin dira hasierako onespenera ezarritako betekizunak. Mapagintza eta Topografia Atalarekin adostu egin da sistema orokorraren mugaketa berria, egoki definitu dadin (baita azpiegiturak izan ditzakeen eragin-ildo berriak ere), guztia Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak 2014ko ekainaren 20an egindako txosten teknikoarekin bat.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek plan orokorraren eduki substantiboa eta hori gauzatzeko beharrezko den gutxieneko dokumentazioa zehazten dituzte, eta lege beraren 90. eta 91. artikuluetan plan orokorra egiteko, izapidetzeko eta onartzeko araudia ezartzen da.

Aipatutako 2/2006 Legearen 103. artikulua xedatutakoaren arabera, hirigintza planen berrikuste oro egiteko, beharrezkoa izango da hirigintza plan horiek aldatzea; 104. artikulua dioenez, hirigintza planen zehaztapenak berrikusi eta zehaztapenetan edozein aldaketa egiteko, plan mota berbera erabili beharko da, eta, gainera, zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili beharko da.

Jendaurrean egoteko epean, Udal Plangintzarako Aholku Kontseiluak nahitaezko txostena egin du Plangintza Orokorrean egin nahi den xedapen aldaketa —behin betiko onespina emateko proposatzen den agirian jasotakoa— dela eta, 2008ko maiatzaren 4an onetsi zen Udal Plangintzarako Aholku Kontseiluaren Araudiaren 6. artikulua eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 109. eta 110. artikulua aintzat hartuta.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak —Tokiko Gobernu Eraberritzeko 57/2003 Legeak osatua— 127.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak du eskumena hiri antolakuntzarako tresnen proiektuak onesteko; behin-behineko edo behin betiko onespina ematea, berriz, Udalbatzari dagokio.

Udalbatzari dagokio antolamendu orokorrari hasierako onespina ematea, baita hirigintzako legediak aurreikusitako planen zein bestelako instrumentuen udal izapidetzeari amaiera ematen dion onspina ere, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 123.1.i artikulua Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua dioenaren arabera.

Gasteizko Udaleko Udalbatzaren eta horren batzordeen berariazko arau organikoak finkatzea du xede araudi honek, horiek eratzeke moduari nahiz bilkura deialdiak egin eta horiek bideratzeko moduari dagozkien prozedura-arauak zehazten direlarik eta zinegotzien eskubide eta betebeharrei buruzko xedapenak onesten direlarik, baita Udalbatza bere funtzionamendurako behar dituen baliabideez hornitzen ere.

Udalbatzaren araudi organikoaren 41 artikulua arabera, premiazko mozioak gobernu organoen nahiz edozein udal talderen ekimenez eta alde zurretik delako arloan eskumena duen Udalbatzaren batzordeak dosierra aztertu eta irizpena eman gabe Udalbatzari aurkezten zaizkion proposamenak dira.

Udalbatzaren araudi organikoaren 41.2 artikulua arabera, gai-zerrendan sartu gabeko eta udalbatzaren batzordeek irizpena eman gabeko gaiei buruzko erabakiak hartu ahal izango dira Osoko Bilkuraren ohiko bilkuretan baldin eta lehendakariak, udalbatzako kideen legezko kopuruaren gutxienez laurden batek edo udal taldeen eledunen batek hala proposatu eta, bozketa egiten delarik, delako premiazko mozioa sartzea gehiengo absolutuz onartzen bada.

Proposatzen den antolamendu aldakuntzarekin bat etorritik, (zeinaren beharra eta egokiera dosierraren parte diren hirigintzako agiriek justifikatzen duten), eta aipaturiko araudia ikusi delarik, erabaki proposamen hau egiten zaio Udalbatzari:

ERABAKIA

1. Premiazko mozio hau sartzea, Hirigintza eta Espazio Publikoaren Batzordeak irizpena eman gabekoa, Gasteizko Udaleko Udalbatzaren Araudi Organikoaren 41. artikuluaekin bat.

2. Behin betiko onespina ematea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearen egitura aldaketari, garai bateko Vasco-Navarro trenbidearen Bide Berdeari lotuta (Otazutik Gasteizera, Zubigarai). Aldaketa hori Garraio eta Komunikazio Sistema Orokorrearen mugaketa batean datza, Maltzaga eta Lizarra bitartean gauzatu gabe dagoen Bide Berdearen zati bakarra garatzea du xede, hori guztia Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza zuzendaritzak idatzi eta zuzendutako proiektuarekin bat (dosierrean jaso da).

3. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 89.5. artikulua xedatutakoaren ildotik.

4. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluaekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko abenduaren 4an

Alkate lehendakaria

JAVIER MAROTO ARANZABAL